

EGUNEKO AHOLKUA

ZAZPIGARREN AHOLKUA: NOLA AURREZTU ARGINDARRA ETXEKO

ARGIZTAPENEAN?

Etxebizitzen kontsumo elektrikoaren % 5 zuzenean dago argiztapenarekin lotuta. Argiaren faktura murrizteko zenbait aholku emango dizkizuegu.

Aprobetxa ezazu etxebizitzaren barrualdea modu praktikoa apaintzeko, aurrezteko

Planifika itzazu espazioak: gela bat argiztatzeko orduan, akats nagusietako bat da kontuan ez hartzea zer okupazio dituen edo zer egitea gustatuko litzaigukeen. Horregatik, zure lehen urratsa ezinbestean izango da gela, espazioa eta dituen erabilerak aztertzea. Hori egin ondoren, hainbat gune eta txoko diseinatu ahal izango dituzu, eta horiek, behar bezala argiztatuta, gela bakoitzaz askoz ere modu aberatsagoan eta biziagoan gozatzeko aukera emango dizute. Horrela, etengailuaren bidez, zure egongela erabat aldatu ahal izango duzu, irakurtzeko gela lasai bat edo hitz egiteko leku bero bat izan dadin, gosaltzeko mahai bat afari bat antolatzeke leku ezin hobea izan daiteke, edo logela txiki bat ikasketa-gela praktikoa eta osoa izan daiteke.

Argiztapena optimizatzeko, **hormetan kolore argiak erabiltzea da onena**. Horrela, argia modu uniformean banatuko da espazioan, hormatik hormara islatze-jolasen bidez.

Argi beroa ala argi hotza?

Argiztapenean, gauza gehienetan bezala, xehetasunetan datza garrantzia. Zenbat aldiz sartu gara etxe batera eta mediku kontsultategi bateko itxarongela hotzean bezala sentitu gara? Eta hor, argiaren "temperatura" edo "kolorea" faktoreak funtsezko papera jokatzen du. Izan ere, zure etxerako argiztapen-diseinurik aberatsena eta landuena izan dezakezu, eta itxura batean bonbilla okerra aukeratzea bezain hutsala den zerbaitek trastera eramatea lortuko du. Orduan sortzen da zalantza: argi beroa ala argi hotza? Bada, ikusi dugunez, espazioaren eta haren erabileraren arabera izango da. Oro har, irakurketa-txokoetan, lan-mahaietan, sukaldean, bainugeletan — batez ere ispiluan — eta jantokiko mahaietan, koloreak desitxuratzen ez dituzten argi hotzak erabiltzea

gomendatzen da; logeletako ingurumen-argiztapena sortzeko, aldiz, ohikoena da askoz ere atsegina eta abegikorragoa den argi beroa erabiltzea.

Hobe zeharkako argiaz

Argi hotza gehiegi erabiltzeak zure etxea dentistaren kontsulta bihur badezake, ez dago argi-foku bat gaizki kokatzea bezalakorik etxea filmeko galdeketa baten eszenatoki perfektua izan dadin. Izan ere, gela bat argiztatzeko ez dago ideia okerragorik, erdian argi-puntu bakarra kokatzea baino. Horrela lortuko duzun gauza bakarra itzal deserosoak sortzea izango da. Argi-puntu ezberdinez osatutako argiztapen-sistema bat diseinatzea da irtenbiderik onena, zeharkako argi eroso eta bahetu bat sortzeko gai izango dena. Diseinu horietako gehienek sabai faltsua erabiltzen dute argiak ezkutatzeko, baina beste irtenbide batzuk izango lirateke foku-lerroa alboetara mugitzea, eta, azkenean, argiak paramentu bat bertikalki bainatzea pantaila gisa jardun dezan, edo argi lauso hori proiektatzeaz arduratuko diren sabaiko eta hormako apliketara egokiak bilatzea. (Zeharkako foku batzuek kontsumo handiagoa dute; beraz, horiek erosteko orduan, behar bezalako aholkularitza eskatu beharko da).

Argiztapen naturalaren aldeko apustua:

Ez dago eguzkiarena bezain atsegina, osasungarria eta merkea den argirik. Gure etxeoko argiztapena argi naturalari ahalik eta etekinik handiena atera nahian antolatzea da gomendio nagusia. Horretarako kontuan hartu beharrekoak:

- Ireki itzazu etxeoko gortinak eta pertsianak eguzki-argia sartu bezain pronto.
- Jarri ezazu irakurketa-gunea leiho baten ondoan, batez ere argi naturala begietarako hobe delako.

Bonbilla egokiak erabiltzea:

Has zaitetz bonbilla konbentzionalak led motako bonbillekin ordezkatzen, **4 edo 5 aldiz elektrizitate gutxiago erabiliko duzu**. Kostu handiagoa izan arren, led bonbillek gehiago irauten dute, eta, normalean, urtebete baino lehenago amortizatzen dira, % 80 gutxiago kontsumitzen dutelako eta 8 aldiz gehiago irauten dutelako. Lehenengo eta behin, has

zaitetz egunean 3 ordu baino gehiago erabiltzen dituzun argiak ordezkutzen. Gainerakoak pixkanaka-pixkanaka alda ditzakezu, erre edo hondatu ahala.

Etxeko zenbait txoko argiztatzeko, **erabil itzazu LED bonbillak, bonbilla halogenoen orde**. Izan ere, bonbilla halogeno baten intentsitatea murriztu arren, elektrizitatearen % 75 kontsumitzen jarraitzen du.

Sukaldea, komuna edo sotoa bezalako geletan, **erabil itzazu neoizko argiak**. Azken horiek kontsumo txikiko bonbillen antzekoak dira, baina haien errendimendua, askotan, handiagoa da.

Hodi fluoreszenteak instalatuta badituzu, erabiltzen jarraitu, bonbilla tradizionalak baino askoz gutxiago kontsumitzen dute, goritasun-lanparek baino gutxiago. Halogenoek kontsumo handia dute.

Garbitu itzazu bonbillak eta pertsianak aldian-aldian, hautsa kentzeko eta argia berreskuratzeko.

Erabilera bakoitzak ez du argiztapen-potentzia bera behar. Adibidez, 20Wko kontsumo txikiko bonbilla bat ezin hobea da irakurtzeko edo lan egiteko eta 5Wko lanpara bat nahikoa da telebista ikusteko.

Ez ezazu energia xahutu

Aholku hau da guztien artean begi bistakoena. Aurreztu nahi badugu, logikoena da egunez dagoen argi naturala ahalik eta gehien aprobetxatzea, saia zaitetz argiak beharizan barik ez pizten eta gela batetik irteteen ez ahaztu argiak itzaltzea.

Etxean energia-eraginkortasuna optimizatzeko zenbait aholku ezagutzen dituzunez, balora ezazu zeintzuk jar ditzakezun praktikan kontsumoa murrizteko. Horietako asko hain dira errazak, ezen laster hartuko dituzu egunerokoan, eta argiaren fakturan nabarituko duzu.

Planetak ere eskertuko dizu!

Iturria: Atari Consultora Sostenible. CENEAM, Leroy Merlin. Arkitektura eta Diseinua.